

Abarrak

MIKEL ASURMENDI

Maddi Zubeldia kantari xaloa

MADDI ZUBELDIA kantari eta bakarlari! Hori usteka-bea! Zein ausarta! Ziburutik Hendaiara heldu zen irailaren 25ean. Abadiako Jauregiko kape-ran aritu zen. Abadiaren Zazpiak Bat lema oroitzuz hasi zen Maddi. Mikel Laboaren omenetan abiatu zuen kantaldia, Bertolt Brecht-en *Liluraren kontra* gogotsu abes-tuz: “Lilurarik ez! Tronpatzerik ez! Kon-tsolatzerik ez! Denbora ez da luzea, uste-lak lurpera, bizitza da handiena, galtzea litzake galtzea dena”.

Lete eta Valverde. Machado espainiarra, Cole Porter irlandarra, Jean Renoir fran-tziarra, Violeta Parra txiletarra... abestu zituen, bes-teak beste. Anton Abadia poliglotaren gisa aritu zen ziburutarra, goxo eta erraz. Bere estilora eta ahotsera ederki egokitutako kantak. Bereak ere eskaini zizki-gun. Haurrekin biziarazitako letrak eta notak xar-manki uztartuak, baita gure herriaren egoerak irado-kitako kanta bat ere. Euskal Herria iragaten ari den ataka luze eta gogorraren abesti eztiagarriak.



Maddi Zubeldia, Abadia Jauregian (2010-IX-25)

Bere ahots eztiagarriak kantari naturala bihurtzen du Maddi Zubeldia. Ramuntxo senarrarekin *a capella* abesten du tarteka eta Xano Urtzegiren akordeoiak, Txomin Arizagaren gitarrak eta Arkaitz Minerren biolinak eta mandolinak ederki babes-ten dute abeslariaren xalotasuna. Xalo-tasuna da Maddiren kantatzeko mol-dea, xalotasuna eta naturaltasuna. Maddik ausardia gehitzen dio natural-tasunari. Ausardia kontrolatua igartzen zaio kantatzeko uanean.

“Kantatzen duen herria, ez da inoiz hilko!” esaten da. Polita da gero, bizi-tzan jasotakoa helduaroan lagunei –eta herrikideei– eskaini ahal izatea. Maddi

Zubeldiak herria eta lagunak ditu gogaide bere ibilal-di musikalean. Joandakoez utzitako arrastoan ikasia eta esker onekoa da. Horregatik agurtu gintuen, naski, Violeta Parraren *Gracias a la vida* parafraseatuz.

Beharbada, herriko kantari xumeen garaia da. Maddi Zubeldia lekuko. Agian, Ziburutik Hendaiara, Azkainen gaindi, Bidasoan bestaldean ere bide egi-nen du Maddik. Agian! ■

BIZKAIKO
BORTSOLARI
ARGIAKORTA 2010

FLAZ MANDALUNIZ .com

2

BERNAR

KAMPORAKETA!

urriaren
17an,
BALMASEDAKO
KLARET
ANTZOKIAN
17:30ean

JOSEBA ARTZA
ASIER LEGARRETA
IKER BELAUSTEGI
IÑAKI ITURRIOTZ
LANDER IBARLUZEA
JONE URIA

Gai-emolea:
BERNAR MANDALUNIZ

Bizkaiko

BFA DFB

bbk

b
balmaseda

LAGUNTZAILEA

argia